



Arartekoaren 2014R-2451-13 Ebazpena, 2014ko abuztuaren 22koa. Horren bidez, Euskal Trenbide Sareari gomendatzen zaio legeari jarraiki izapide dezan Bilboko metroaren 3. linea eraikitzearen ondotik etxebizitza batean jasandako kalteak direla-eta bideratutako ondare-erantzukizunari lotutako erreklamazioa.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan (...)ek egindako kexa jaso dugu, Bilboko metroaren 3. linea eraikitzearen ondotik haren etxebizitzan (...) pairatzen dituen kalteak direla-eta Euskal Trenbide Sarea (ETS) erakunde publikoari aurkeztu dion erreklamazioaren inguruan erantzunik jaso ez duelako.

Pertsona horrek esan du, obrak hasi aurretik, ETSk kontratatutako enpresa batek zegokion ikuskapena egin zuela jabetzaren alde aurretiko egoera ziurtatzeko, ETSk obren ondotik kalteak jasandakoei bidalitako jakinarazpenaren arabera, ondasunak ikuskatzeko lanak esleitu zizkioten arkitektura estudioko teknikariei etxebizitzetan sartzen utz ziezaieten. Txosten tekniko horrek xedatu zuen eraikina aurretiko planaren arabera D kategoriakoa zela (eragin edo kalteren bat egon daiteke) eta egoera orokorrean ona zela, bai kanpotik bai barrutik. Txostena amaitu zen esanez Artxandako tunelaren alde bertikaleko eraikinaren kokapenak -gutxi gorabehera 175,00 metroko sakoneran- eragina duela obren ondorioak minimoak izan daitezten.

Hasiera batean jakinarazi zieten ez zirela leherketak jazoko; bai, ordea, haien etxebizitzetara eragin ziezaiekeen tunela lurra zulatuz eraikiko zela. Dena den, egia haxe da: leherketak egon dira eta eraikinaren narriadura bistakoa da. Horregatik, 2012ko ekainaren 15ean, idazki bat aurkeztu zuen tunela eraikitzeo egindako leherketen ondotik eraikinean jazotako kalteen berri emanez eta eraikina obrak hasi aurreko egoerara itzultzeko beharrezko lanak lehenbailehen egin zitzaten eskatuz.

Ez duenez erantzunik jaso eta eskatutakoa ere ez denez gauzatu, erakunde honen esku-hartzea eskatu du.

2. Erreklamazioan adierazitako alderdiak eta aurreko paragrafoan aipatutako aurrekariak baloratu ostean, ETSri informazioa eskatu genion espedientearen izapidearen egoeraren berri izan genezan.

Lehenengo erantzunean, erakunde publikoak, interesduna zen aldetik, adierazi zuen beste kontu batzuen artean, 2012ko ekainaren 26an enpresa esleipendunari txosten bat eskatu ziotela. Txostena aseguru-etxeak egin behar zuen eta eskumena zuen teknikariak, baita obrako zuzendaritzak ere, sinatu behar zuten. Horrez gain, kexagilearen senarrak aurkeztu zuen ondare-erantzukizunagatiko erreklamazioan islatutako alderdiak barne hartu behar



zitzen. Errekerimendu hartan enpresa esleipendunari 15 eguneko epea eman zitzaion aipatu txostena eta prozedura izapidetzeko. Halaber, hauxe adierazi zen: eremuan **“makina bat kexa eta behin eta berriro egindakoak”**. Eskaerak jaso zuen txostenak zenbait alderdi argitu behar zituela:

- “1. Procedencia (o no) de la reclamación. Veracidad de los hechos reclamados.*
- 2. Comparativa con el estado original, en base al informe de inspección de edificios.*
- 3. Comunicaciones efectuadas entre el Contratista y la compañía aseguradora.*
- 4. Comunicaciones efectuadas entre la compañía aseguradora y el afectado. Fechas de las visitas por parte del perito a la finca objeto del informe.*
- 5. Procedimientos efectuados y/o previstos por la compañía aseguradora para el resarcimiento (si procediera) de los daños reclamados.*
- 6. Requerimientos efectuados al reclamante para completar el informe (valoraciones etc).*
- 7. Recibos de aquellos pagos efectuados como compensación de los daños causados (si procediera).*
- 8. Toma de posición para cada eventual siniestro en el caso de no existir voluntad (sic) de resarcir los daños y motivación de tal voluntad.*
- 9. Toda aquella documentación complementaria relevante.”*

Ondorio horietarako, azaldu zuten, behin izapide guztiak amaituta, espedientea ebartziko zela eta, hala, erreklamazioa bideratu zuen interesdunari –alegia, (...), erakunde honetan kexa aurkeztu duen pertsonaren senarra- zegokion ebazpena helaraziko zitzaiola.

Enpresa kontratistari errekerimendua igorri zitzaionetik urte bat baino gehiago pasa zen. Hortaz, ondare-erantzukizunari buruzko espedientea ebazteko egindako edo egitea aurreikusitako izapideei buruzko informazioa zabaltzeko eskatu genuen.

3. Bigarren eskaera horri erantzunez, hauxe esan ziguten: **“Erakunde honetako zerbitzu teknikoek interesatuak aurkeztutako erreklamazioan adierazitako puntuak aztertu ondoren, erakundeak ebazpena eman du, erreklamaturako kalteen inguruan inolako erantzukizunik ez dagokiola adieraziz, indarrean dagoen araudiak, erantzukizun hori bideratzeko, ezartzen dituen zergatien ondoriozko kalteak izan ez direlako.”**

Kexagilearen ordezkariari bidalitako gutunean, agiri bakar gisa erantsitakoan, hauxe aipatu zen:

“...Erakunde hau ez dela eragindako kalteen erantzulea, erantzukizun hori jasotzeko dauden balizkoen artean bat ere ez duelako izan.



Erakunde honek ezin du erantzukizun hori bereganatu, Obra Zuzendaritza honek egindako lan guztiak onartutako proiektuen arabera egin direlako, eta, beti ere, beharrezkoak diren kontrol neurri guztiak kontuan izanik.

Dagozkion ondoretarako, lanen esleipena duen enpresarekin jar zaitezketen harremanetan,...

Gogoetak

1. Sektore publikoko kontratuei buruzko legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 214. artikulua¹ honako hau xedatzen du:

“1. Será obligación del contratista indemnizar todos los daños y perjuicios que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato.

2. Cuando tales daños y perjuicios hayan sido ocasionados como consecuencia inmediata y directa de una orden de la Administración, será ésta responsable dentro de los límites señalados en las Leyes. También será la Administración responsable de los daños que se causen a terceros como consecuencia de los vicios del proyecto elaborado por ella misma en el contrato de obras o en el de suministro de fabricación.

3. Los terceros podrán requerir previamente, dentro del año siguiente a la producción del hecho, al órgano de contratación para que éste, oído el contratista, se pronuncie sobre a cuál de las partes contratantes corresponde la responsabilidad de los daños. El ejercicio de esta facultad interrumpe el plazo de prescripción de la acción.

4. La reclamación de aquéllos se formulará, en todo caso, conforme al procedimiento establecido en la legislación aplicable a cada supuesto.”

Aurrekarietan adierazi dugun moduan, erakunde publikoak ez du legeko mandatuaren araberako kalteen erantzukizunaren gaineko iritzirik eman. Izan ere, jakinarazpenean bakarrik esan du ez duela erreklamaturako kalteen gaineko ardurarik. Hala ere, sektore publikoko kontratuei buruzko legeak xedatzen duena da ezar dadila modu arrazoituan erantzukizuna kontratatzailearena edo kontratistarena den, baita obren egikaritzeari egotz dakioken kalteen erabateko gabezia dagoen ere.

Jurisprudentziak gai honen inguruan halaxe xedatu du. Horregatik, Auzitegi Goreneko epaiak, kasazioko errekurtsioan², pronuntziatzen du bat eskatzen du honako hau adierazterakoan:

¹ Hizpide ditugun obren kontratazioarako espedienteari aplika dakioken kontratazio-araua zein den ez dakigu, artikulua honek herri-administrazioetako kontratuei buruzko legeko testu bategina onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuko indargabetutako 97. artikulua ordezkatzeko badu ere.

² Administrazioarekiko auzietako hirugarren sala, 6. atala, 2013ko urriaren 14ko epaia, 704/2011 Errekurtsioa.



“...En esta tesitura, según dijimos en nuestra sentencia de 30 de marzo de 2009 , dicha Administración puede optar entre dos alternativas: considerar que concurren los requisitos para declarar la existencia de responsabilidad o estimar que están ausentes y que, por lo tanto, no procede esa declaración; en la primera hipótesis pueden ofrecerse, a su vez, dos salidas posibles; a saber: entender que la responsabilidad corresponde al contratista o que, por darse los supuestos que contempla el apartado 2 del repetido artículo 97, sea ella misma quien tiene que hacer frente a la reparación. En este último caso así lo acordará y en el otro deberá reconducir a los interesados hacia el cauce adecuado, abriéndoles el camino para que hagan efectivo su derecho ante el adjudicatario responsable.

Lo que no puede hacer es limitarse a declarar su irresponsabilidad, cerrando a los perjudicados las puertas para actuar contra la empresa obligada a resarcirles. Así se lo impiden, no sólo el espíritu del artículo 97 del Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, que quiere un previo pronunciamiento administrativo sobre la imputación del daño, cualquiera que sea el modo en que se suscite la cuestión, sino principios básicos de nuestro sistema administrativo en general, como los de buena fe y confianza legítima (artículo 3, apartado 1, de la Ley 30/1992 (LA LEY 3279/1992)), y de su procedimiento en particular, que obligan a impulsarlo de oficio y a poner en conocimiento de los interesados los defectos de que adolecieren sus actos a fin de que los subsanen en tiempo oportuno (artículos 71 , 74, apartado 1 , y 76, apartado 2, de la misma Ley).”³

Hala, aurrekarietan jasota dagoen moduan, erakunde publikoak legez ezarritako izapideak hasi zituen enpresa esleipendunari partikularrek aurkeztutako kalteen ondotik bideratutako erreklamazioaren berri emateko eskatu ziotenean. Dena den, ezustean, abiarazitako ikerketa-ekintza gorabehera, erakundeko idazkaritza nagusiaren jakinarazpen (ez ebazpen) batekin amaitu zen. Idazki hori 2014ko otsailaren 10ekoa da eta bertan erantzukizunetik salbuesten da baina ez da ikerketaren, proba praktikoen, gogoeta juridiko eta teknikoen emaitzaren berri ematen. Azken batean, kalteei lotutako erantzukizuna arrazoirik eman gabe ukatu da.

2. Beraz, erakunde publikoak, kontrataziorako duen organoaren bidez, jarduera instruktorea baliatu behar du, erreklamatzeko diren kalteak badauden eta horien zergatik egiaztatzeko bidea eman behar duena, legezko mandatuak xedatu moduan ebazteko.

³ Epaiak hizpide duen herri-administrazioetako kontratuei buruzko legearen testu bategina onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 97. artikulua sektore publikoko kontratuei buruzko legean indarrean dagoen 214. artikuluekin bat dator (edukiek bat egiten duten).



Gure ustez, horretarako, espedientea behar bezala bideratu behar da eragindakoek erreklamatutakoa obraren egikaritzearen ondorioz interesdunen etxebizitzaren aurretiko eta ondorengo egoerarekin egiaztatzeko, bere garaian Artxandako tren tunela eraikitzeko obraren enpresa esleipendunari bidalitako idazkiaren bidez egin moduan. Ez dakigu enpresa esleipendunak ETSren errekerimenduari erantzuna eman zion, eskatutako edukia kontuan hartuta baina, edozelan ere, enpresa esleipendunak -errekerimenduari erantzun ez bazion- zuen erantzukizunaren kaltetan izan gabe, erakunde publikoak, interesdunari entzunaldi izapidea eman eta egin ostean, eraikinaren egungo egoera aztertu behar du eta etxebizitzaren aurreko egoerarekin alderatu, 2010eko uztailaren 1eko ikuskapen txostenarekin bat etorritik (kontratututako enpresa bati esleitu zion eta uste genuen berariazko xedea etxebizitzaren egoera dokumentatzea zela-).

Kasu horretan, eragindakoek mahaigaineratu dutenaren arabera etxebizitzaren aurreko egoerarekin alderatuta kalteak daudela egiaztatuz gero, kontratazio organoak xedatu beharko du kontratuko norke hartuko duen gain kaltearen erantzukizuna.

Instrukzioa bideratzean, hainbat alderdiren artean, tunelaren egikaritze sistema aldatu izanaren inguruan kexagileek egindako alegazioak aztertu beharko dira. Izan ere, hasiera batean esan zieten leherketarik gabe zulatuz egingo zela eta egiazki leherketen bidez egin zen. Ildo horretan, instrukzioan jasota geratu beharko dira proiektuan gehitutako aldaketak eta kontratatzaileak baimendutakoak, ezarritako segurtasun neurriak eta halako kasuetarako nahitaezko minimoak barne. Horrez gain, hori guztia benetan egindako leherketen datu sismografikoekin eta alegatutako gaiaren inguruan argia emango duten beste datu batzuekin egiaztatu beharko da.

Kalte horiek ez daudela ulertuz gero, hori guztia behar bezala arrazoitu beharko da eta bideratutako instrukzioan jasota geratu. Labur esanda, hizpide dugun epaiak adierazi moduan, *"kontratastaren erantzukizunari buruzko arauak prozedura-diziplina ezartzen du"* eta, horregatik, epaiak xedatzen du alderdi kontratatzaileak jazotako kalteak gain hartu behar dituela, instrukzio labur eta eskasa, zehaztasunik gabea eta garaiz kanpo egindakoa ikusirik. Hori guztia kontratatzaileak *enpresaren aurka gauza bera egitearen kaltetan izan gabe obra egikaritzean kaltea egitearen erantzukizun erabakigarria jazoz gero.*

3. Azkenik, prozeduraren ikuspegitik eta aurretik aipatutako xehetasunen kaltetan izan gabe, ETS erakunde publikoak, Euskal Trenbide Sareari buruzko maiatzaren 21eko 6/2004 Legea xedatzen duen funtzionamendu-erregimenarekin bat etorritik (7. artikulua), kontuan hartu beharko du Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen X. tituluan ezarritakoa.



Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, gomendio hau egiten diogu Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoari:

GOMENDIOA

Behar bezala izapide dezan (...)k Bilboko metroaren 3. linea eraikitzearen ondotik haren etxebizitzan jasandako kalteengatik bere garaian aurkeztutako erreklamazioa.

Edozelan ere, erreklamazioaren inguruan arrazoitutako ebazpena eman dezan.